

Emakumeen aurkako Indarkerian esku hartzeko unibertsitate masterraren profila

Titulu honen bidez, hainbat diziplinako profesionalak prestatu nahi dira, emakumeen aurkako indarkeriaren esparruan modu koordinatuan eta diziplina ugarian esku har dezaten, emakumeen aurkako indarkeria identifikatzeko, diagnostikatzeko eta tratatzeko, kalitatean eta berrikuntzan oinarrituta, bai eta emakumeen aurkako diskriminazioa eta indarkeria bultzatzen duten estereotipoak eta jarrerak ezabatzen dituzten portaera eta jarraibideak aplikatzeko ere.

Graduatutako pertsonak, masterrean zehar, beharrezko gaitasunak eskuratzen dituzte emakumeen aurkako indarkerian esku hartzeko espezializazio maila handia duten profesional bihurtzeko. Profesional horiek esku hartze asistentzialak, psikosozialak, hezkuntzakoak, soziosanitarioak eta/edo juridikoak diseinatu, planifikatu, kudeatu, gauzatu eta ebaluatzeko gai dira (beren profil profesionalaren arabera), genero indarkeriako esku hartzearen diziplina arteko ikuspegi holistikoa batetik abiatuta, eta emakumeen premietan eta haien testuinguruan eragiten duten faktore ugariak kontuan hartuta.

Horretarako, tituluak hau ematen du:

- Ezagutza maila handia, genero indarkeria eragiten duten egoerak eta kausak eta indarkeria horrek hartzen dituen moduak ezagutzeko aukera emango diona
- Emakumeen aurkako indarkerian esku hartzea garatzen den esparru juridiko eta antolaketakoa
- Esku hartzeko tresna profesionalak eta metodologiak, informazio, laguntza eta aholkularitza zerbitzuen eskaintza hobetzeko
- Emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzearekin eta indarkeria prebenitzearekin lotutako ezagutza eta tresna espezializatuak.

Aurretiatzko lanbideko profilararen arabera, ikasketak amaitzen dituzten pertsonak honako eremu hauetan lan egiteko behar duten gaikuntza eskuratzen dute:

- Erakunde publikoek ematen duten zuzeneko arretan eta/edo berdintasuna sustatzen; izan ere, masterrak berdintasunaren arloan eskatzen diren 150 orduak eskaintzen ditu euskal administrazio publikoko berdintasun teknikarien plazak lortzeko.

- Elkarte edo erakunde pribatuek genero indarkerian emandako arretan eta esku hartzean, bai eta indarkeria matxistari eta genero berdintasunari buruzko sentsibilizazioan, prestakuntzan, ikerketan eta aholkularitzan ere.